

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Baratza

Stéphane Mallarmé (Paris 1842-1898), sekulako poeta, amets batek bizi omen zuen: hitz bakar bateko olerkia idaztea. Ruben Alves teologo, filosofo, idazle eta psikoanalista brasildarrak dio, amets hori hitz batek soilik bete dezakeela: “Jar-dim”, hau da euskaldunontzat baratza.



Stéphane Mallarmé, Manetek egindako erretratuaren.

Irakurleak galdezka

Bi urtez ibili naiz intxaur beltzaren *–juglans nigra–* hazietatik *–intxaurretatik–* zuhaitz berriak sortu nahirik, baina bat bera ere ez zait atera. Azalduko dizuet zein bide segitu dudana: intxaurra irail edo urri aldean, heldua dagonean alegia, zuhaitzetik jaso. Azaroan lurpean sartu, bost bat zentimetroko sakoneran, eta gero noizbehinka ureztatu, haziak hezetasun egokia izan dezan. Bide berbera erabili dut bertako intxaurrondoaren haziarekin *–juglans regia–* eta arrakasta erabatekoa izan dut. Entzuna daukat intxaur beltzaren haziak zailak direla erretzeko. Ea argibideren bat ematen didazuen. Mila esker.

Xabier Mauleon (Donostia).

Iepa Xabier. Geruzatze teknikarekin egin ezak saioa. Urak alde egiteko moduko zuloak dituen ontzia (zuzeko onena) eta erreka-hondarra eta lur beltza nahasketa (10-2 proportzioa) behar dituk. Ontzian hondarra, intxaurrak, hondarra, intxaurrak... geruzaka jarri, bukatzeko hondarra jarri lodi. Ontzia kanpoan eduki, toki fresko edo hotz batean; ito gabe baina hondarrari beti heze eutsi. Intxaurrak jango lituzketen animalietatik babestu, sare batekin edo dena delakoarekin.

Teknika honen oinarria haziak ez lehortu, eta pixkanaka udaberrian ernatzen lagunduko dion hezetasuna barneratzea da. Ernatzean adi ibili, azaldu ordurako muintegira edo baratzerara pasa, bestela baten eta bestearen sustrai eta enbortxoak nahaspilatuko dira.

Esango diguk...

Ospearen kaltea

HAGINAK AGINDU, hagin du gure kontzientzian milaka urtetan. Etxe atarian, erromerien zeruetan, gudatako uztaietan, iturrien itzaletan, hilerrien terralean... herriarentzat nolana hikoak ez ziren toki guztietan, han izango zen garai batean. *Quercus robur* eta *Quercus ilex*, haritza eta artearekin batera, *Taxus baccata* hagina izango da herri eta sendien armarietan ugari jaso dugun zuhaitza. Gipuzkoakoan dagoen hirukotea adibide. Armarietara ematen diegun zaintza bizidunentzat ez dugu eta mirakuluz iraun dute hagin handi batzuek, ale bakan batzuek. Eta hauetako gutxi batzuk monumentu izendatuak ditugu.

Iparraldeko berririk ez dut eta inork balu gustura hartuko genuke, baina Hegoaldean izendatuak ditugun 73 zuhaitz monumentalen artean zortzi hagin baditugu: Otsaportilokoa Urbasan, Auztegikoa Otsagabian, Altxatakoko Etxalarren, Izarrakoa Urkabustaizen, Antoñanako Kanpezun, Sagastizabal baserrikoa Aian eta Arimekorkotako pare Zeanurin.

Bada gure mendietan hauen pareko hagin gehiago, baina zalantza dut haien bizilekuaren berri eman edo ez. Zuhaitz zaharrek ari diren jende eta elkarte gehienek ustez, monumentutzat jotzen diren zuhaitzen egoerak nabarmen okerrera egiten du izendapen ospetsu horren ondoren. Gezurra dirudi, tratu txarra baino txarragoa ematen diegu ustez apartekoak ditugun txirilagun hauei... Egia esan, emakumea kide hilgarritzat duen gizarte batengandik ezin askoz gehiago espero... Hala ere, badaezpada ere, ekintzaile hauek zuhaitz zaharrak errespetatzeko araudi bat proposatua dute: babesa eraginkorra izan dadin errespetu etikotik abiatu behar da, kontuz zuhaitz hauen kokapen zehatza zabaltzearekin, bisiten kalteak murrizteko baldintza zorrotzak ezarri, talde bisitak urritu, zuhaitz zaharrak izanik ahulak direnez, ez ingurua zanpatu edo zabortu, ez gainera igo ez markatu, zuhaitzotara oinez soilik hurbiltzeko mugak ezarri eta bide berriak kontu handiz eraiki, inguruko edozer gai jasotzea debekatu, ez panelik ez kartelik ez jarri eta amontzarron adina ezagutzeko Pressler daratulua-ekin zulatzea galarazi.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.